

auzo • auzo • auzo • auzo • auzo • auzo

herrera

herrerako Jubilatuen Etxeak 19 urte bete ditu dagoeneko. 1976. urteko martxoaren 2an, auzoko zenbait aitona-amonak, apaizarekin batera, martxan jarri zuten orain Aterpea bezala ezagutzen dugun jubilatuen egoitza.

Hasiera batean, Lagunbide izenez ezagutzen diren elizako lokaletan ezarri zuten egoitza baina denborarekin elizaren lokalak txikiak geratu ziren eta elizaren beharrak betetzeko beharrezkoak gainera. Orduan, Donostiako Udalak «*Banco Guipuzcoano*»ri Gaiztarron zituen lokalak erosi zituzkion eta 1983. urtetik aurrera, bertan biltzen dira Herrerako aitona-amonak.


Hasiera haietan gutxi batzuk ziren baina gaur egun 518 bazkide ditu eta hainbeste jenderentzako tokirik gabe dabilta. Bien bitartean Gipuzkoako Bankuaren lokalak hutsik dira, eta egoitzakoek, lokal hauek erosteko aukera erraz dezatela nahi dute.

Hala ere, egoitzan eguneroko bizitzak aurrera jarraitzen du: karta jokoeak, xakeak eta dominoak betetzen dituzte zaharren ordu gehienak, baina 518 bazkide hauen elkarbizitza gero eta zailagoa da behar adina leku ez dutelako.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: XIMON

«Aterpea» txikia geratzen ari da



Gero eta zahar gehiago dago auzoan eta toki handiago baten beharra somatzen dute.

altza

Espetxeko emakumeak

altzako Ostadar emakume taldeak urtean zehar Martuteneko espetxean dauden emakumeekin lan egiten du, ikastaro eta noizbehinkako erakusketa edo ekintza kulturak antolatuz. Besteak beste, datorren asterako ekintza ugari antolatu du talde honek.

Asteartean hasita, hilak 28, Altzako Ausartak emakume antzerki taldeak «*Casa Pura*» lana taularatuko du. Antzezlanaren amaitu ondoren luntx

txiki bat izango dute antzezleek bertan dauden presoekin.

Asteazkenean, hilak 29, mahai ingura izango da «*Emakumea gaur*» izenburupean. Mahai inguruko partaideak honako hauek izango dira: Amaia Almirall (Casares Kultur Etxeko arduraduna), Elvira Kortajarena (Gizarte Ongizate saileko diputatua), Carmen Nagel (Emakumearen Udal Zerbitzuko zinegotzia), Txaro Arteaga (Emakundeko

zuzendaria) eta Maribel Moneo (emakumearen udal zerbitzuko abokatu).

Ostegunean, aste honi amaiera emango zaio, horretarako Erreka taldeak dantzaldia eskainiko du, salsa, merenge eta bolero musikaz.

Aste honen antolatzaileak Ostadar Emakume Taldea, Loiolako Kultur Etxea, Emakunde, Emakumearen Udal Zerbitzua eta Martuteneko espetxea izan dira.